

bidegileak



Bonifazio Etxegarai (1878-1956)

Egilea:

JOSE ANTONIO ARANA MARTIJA

Bi anaia

Karmelo eta Bonifazio Etxegarai anaiak Antzerako Bizitzak izenburu daraman liburuan sartuko zituen Plutarkok (46-120) euskal idazle eta ikerle hauek ezagutu balitu. Fermin Herranek Bonifazioren *Cuadros* liburua argitara eman zuenean (1900) hara zer esan zuen epilogo antzeko azken hitzetan: «arte eta jostagarri lanetan gailenduko da Bonifazio, Karmelo historia eta kritika-munduan nabarmendu den beza-la». Eta hala zioen Karmelo idazle eta ikerle zenean eta Bonifazio letren munduan hasi berria baino ez zela. Idazketa garaiaren hasieran hori esan bazen, bizitza osoko lanak erkatuke-



Bonifazio Etxegarai Korta (1878-1956)

ran Jose Artetxek (*Camino y horizonte*, 1960) esaten duena baieztatzeko: «Karmeloren zerrenda bibliografikoa luzea bada, Don Bonirena ez da laburragoa izango». Lagunartean, bizimoduko goi kategoria irabazi zuenean, Don Boni deitzen zioten. Eta sarritan berak *Bonipazi* sinatzen zuen gutunetan.

Jose Artetxek, aipatu liburuan, ematen digu Don Boniren itxura, Santiago Onaindiak hala euskaratu zuena: «Langile zehatz eta asper-



Idazlearen izena daraman kalea Zumaia jaioterrian

gaitza; eta gogai-txarteltegi zabal baten jabe, Bonifazio idaztitegiko morroi eragiñena ere azpiratzeko bestekoa bait zen. Larrantz ezin nahastua zeukan. Matxar, artega, sudur goi-luze, leun, zorrotz, orratz gainean bultz-indarrez ipinitako izakia zirudien. Surpekoa lehengo erara, adar meheakin, berdintsu adierazkortasun berezia zuten esku batzuen berezko helbide ematen zuen. Eskuak oso lirain zijoazkion surpekoaren adarretara. Mintzatzaile goxo, ohi ez bezala bizia, asko ere asko hitz zegin keinuz».

Gizon honen biografia eta lana da liburuxka honetan aztertu behar duguna.

Jaiotza eta haurtzaroa

Zumaiako Erregistro Zibilean (5. liburuan, 93. orrialdean, 113. agirian) Bonifacio Maria del Carmen Jose Echegaray haurren jaiotza agertzen da erroldatuta, 1878ko ekainaren 5eko zortzi t'erdietan jaioa, aita Joakin Maria Inazio Etxegarai eta ama Josefa Inazia Dominika Korta direla. Aita, 1830ean jaioa, pasaiatarra zen, Fernando Maria Etxegarai aitona bezala eta Madalena Segunda Etxeandia erreteriarra. Ama Azpeitian 1833an jaioa zen, zeinen gurasoak Inazio Maria Korta, Urrestillakoa, eta Mikaela Inazia Izagirre Azpeitikoa. Bataioaren aitabitxi Karmelo Inazio Sebastian Trifon Etxegarai jaio berriaren anaia eta amabitxi Karmen arreba izan ziren. Fernandok eta Madalenak, Joakinen gurasoek, beste seme bat ere izan zuten, Rafael izenekoa, Santander aldera joan zena, non bi seme-alaba izan zituen: Amparo eta Evilasio, Josefa Abascal-ekin ezkondua eta Kontsuelo Etxegarai Abascal-en gurasoak, hau izan zelarik Karmelo Etxegarai Kortarekin ezkondu zena 1897ko azaroaren 18an.

Joakin eta Josefa, Bonifazioren gurasoak, Azpeitian bizi izan ziren bigarren karlistaldia 1876an amaitu arte, Karmelo eta Karmen seme-alabekin. Joakin ontzi kapitaina zen eta gerratea bukatu zenean Zumaiara joan zen familiarekin portuko arduradun nagusiaren laguntzaile kargua eman ziotelako. Badirudi egoera ekonomikoa hobetuz joan zela eta une horretan jaio zen Bonifazio, Karmelo



Zumaiarrek 1921.eko abenduan Domingo Agirrerri egindako omenaldian bilduak

baino hamahiru urte gazteagoa. Baina ume berriak bi urte bete baino lehen, 1880ko apirilaren 26an hil zen Joakin aita, familia hornitzen zuen bakarra. Amak hartu behar izan zuen familiaren gidaritza, eta txirotasunean geratu arren, Karmelok letretarako zeukan joera itxaropentsua ikusirik, hamabost urte zeuzkala Santanderrera bidali zuen irabazpidetako zereginetan ondo zebilen Evilasio lehengusuarengana. Bi urte bete zituen Karmelok Santanderren. Lehenean (1881-82) ingelesa eta ekonomia ikasi zituen; eta bigarrean (1882-83) frantsesa. Bost urte zituen Bonifaziok Evilasio hil zenean (1883) eta Karmelok hemezortzi urterekin Zumaiara itzuli beharra izan zuenean. Udal epaile izateko gazteegia zen, baina 1884an Gipuzkoako Diputazioaren Biblioteka katalogatzeko taldean sartu zen. Langile ona eta artxiboak taxutzen trebea zela frogatu zuten Diputazioko agintariak 1891n udal artxiboak ikusi eta antolatzea bidali zuten eta 1892ko

urtarrilaren 30ean Madrilera eta Escorialera hango artxiboak arakatzera.

Esandako guztiak badu zerikusirik Bonifazioren haurtzaroarekin. Sei urterekin edo, eskolara hasi zen, gaztelaniaz hitz egin eta ikasten. Donostiatik Zumaiara asteburuan etorri zen Karmelori esan zion Bonifaziok erdal maisuak esan zuela euskara «animalien hizkuntza» zela. Hamar urte zituen Bonifaziok hau entzun zuenean eta bizi guztian geratu zitzaion osatu gabe zauri hau. Dena den, mindura hau osatzeko eman zion Karmelok gantzua: John Rhys galesa Lapurdira euskara ikastera etorri zen eta bizi osoan (1840-1915) animalien mintzaira ez zena erabili eta ikertu zuen, Karmelo ikertzaileari berari ere bisita eginaz. Haurtzaroko oroipenak beti izan zituen gogoan eta idatzi ere: «Arritokieta. Recuerdos de Zumaya» 1895ean *Euskal Erria* aldizkarian eman zigunean, baita euskaltzain sarrera hitzaldian Manuel Beobide aipatu zuenean «eta ainbat aurjolas lagun!».

Gaztaroa eta ikasketak

Karmelok lanbide finkoa lortu zuenean Donostian, hara ekarri zuen Bonifazio anaia heziketa ertaineko ikasketak egitera. Hamabost urte zituen anaia gazteak hori 1892an gertatu zenean, Karmelok Santanderrera antzerako ikasketak egiten joan zenean zeukan adina. Bitartean Karmelo kanpotik zebilen eta argitaratzeko prestatu zituen *Investigaciones históricas referentes a Guipuzcoa* (1893) eta *Las Provincias Vascongadas a fines de la Edad Media* (1895). Historia aldetik liburu honek daukan balioa ikusirik, Bizkaiko Diputazioak proposatu zuen 1895eko abenduaren 6an



Serapio Mujika, Karmelo Etxegarai eta Bonifazio gaztea Donostian

Karmelo Etxegarai hiru Probintzien Kronista izendatzea, Araba eta Gipuzkoakoek 1896ko martxoan onartu zutena. Gernikako Batzar Etxeko artxiboa antolatzea tentagarria zen eta beste ikergune guztiak alboratuz, oraindik ezkongabe zegoenez, Arbolapeko hirian hartu zuen ostatua, bukatu gabe zegoelako bizitzeko nahi zuen etxea.

Ordurako Bonifaziok amaituta zeukan batxilergoa edo erdi mailako ikasketak eta Donostiatik Gernikara etorria zen Karmelo anaiarekin bizitzera. Laster etorri ziren (1899) ama eta arreba Karmen Zumaiatik, eta Kontsuelo, Karmeloren emaztea, Santanderetik. Eustokio Uriarte durangarra izan zen Santanderreko San Frantzisko parrokian ezkondu zituena (1897); baina lehenagotik zituen harremanak Karmelok agustinoekin, hots, 1896ko irailaren 26an fraide hauek Ikastetxea inauguratu zutenetik. Escorialeko artxiboetan ere ibili zenean (1893) Unibertsitate berria sortua zuten fraide horiek eta hara bidali zuen Karmelok anaia zuzenbide ikasketak egitera (1896). Hiru urte behar ditu zuzenbideko ikasketak menderatzeko eta 1899ko irailean Gernikan dugu. Orduan idatzi zuen *Cuadros* liburuan agertzen den «Maritxu» ipuin luzea. 1911ko urriaren 8an Serapio Mujikari diotso Karmelok ipuin hori nahi duela luzatu eleberria bihurtuz, eta hala egin ere *Aquí fue la Arcadia* izenburuarekin hasi baitzen zatika argitaratzen (*Euskal-Erriaren alde*, 1914, 1917).

Euskal idazlea

izitzako arlo honetan ere Karmeloren parekoa dugu, eredutzat hartuz anaia nagusiaren ibilbidea: euskaraz idazten ditu bere lehen lanak, gehienetan olerkiak, *Euskal-Erria* eta *Euskalzale* aldizkariak erabiliz. 1893an gertatu zen hau, Bonifaziok hamabost urte zituenean. Bi orrialdeko lana izan zen argitaratu zuen lehena, «Irakurgai chiki bat». Jon Bilbaoren *Euzko Bibliographian* azaltzen dira euskarazko lan horiek guztiak; baina bereziki bi nahi nituzke nabarmendu: Donibane Lohizunen, 1894ko abuztuan Euskal Jaietan irakurri zuen «Euskal Erria, bere ohitura, usantza

eta libertade zarrak» 40 bertsotan, eta urte berean Donostiako Euskal Jaietan saria irabazi zuen «Beti, beti euskaldun». Escorialen zegoenean, 1897an, higatu zitzaion euskal luma *Euskalzalen* «Lore maitia» argitaratu zuenean.



Bonifazio Etxegarainen lehen artikulua biltzen dituen liburua

Kazetaria

Lanbidea irabazteko lehiaketetan sartu zenean, eta lehenagotik ere Escorialen zegoela, euskara baztertu egin behar izan zuen, beste mundu batean bizi zelako eta zuzenbide ikasketak gaztelaniaz egin behar zituelako. Baina euskal letretan fama lortu zuenetik, Euskal Herritik kanpo, ikasketetan edo lanbidea betetzen zegoen Don Boniri, hementxo egunkariak artikuluak eskatzen zituzkieten eta berrehunetik gora idatzi eta argitaratu zituen halakoetan, Elias Amezagak zerrendatzen dituenetatik *Autores vascos*, III, 1988 liburuan. Hain zuzen, *BRSBAP*, *El Día*, *Diario de Navarra*, *Euskal-Erriaren Alde*, *Eusko Ikaskuntzaren Deya*, *Euzko Deya*, *La Gaceta del Norte*, *Bulletin Hispanique*, *El Noticiero Bilbaino*, *El Pueblo Vasco*, *RIEV*, *La Tarde*, *Txistulari*, *La Vasconia*, *La Voz de Navarra*, *Vida Vasca* eta *Yakintza* egunkari eta aldizkarietan idatzi zuen.

Denetarik ziren erabiltzen zituen gaiak: ipuinak, etnografia, Fueroen defentsa, zuzenbidea (laburki); pertsonaiak: Iturribarria, Xabierko Frantzisko, Loinazko Martin, Kirikiño, Zamarripa, Azkue, Eusebio Lopez, Pepe Artola, Iztueta, Larramendi, Urkixo, Kanpion, Gerra, Arrese Beitia, Eleizalde, Allende Salazar, Lauaxeta, Lizardi, eta abar.

Baina bereziki nahi nuke azpimarratu musikazale aditua zela, Escorialen gregoriar kantua Eustokio Uriarterekin ikasiko zuelako

edo durangar musikari asko zeudenez monasterio hartan, baten bat kapera maisu izango zuelako. Kontua da Gernikara etorrita Sebero Altubek sortu zuen Gernika Orfeoian sartu zela eta Donostian 1904ko irailean antolatu zen Orfeoien lehiaketa batera joateko asmoz saioak egiten zebiltzala eta partitura batean idatzita utzi zuen «nire herrikoak badoaz ere, ni gernikarren alde azalduko naiz». Bestalde, Madrilera joan zenean 1910ean, edo gerotxoago, Orienteko Plazan, 6. zenbakian jarri zuen familiaren egoitza; etxe berean bizi zen Jose Cubiles pianista eta lagun izatera iritsi ziren. Lehengo bizi izan omen zen etxe honetan Julian Gaiarre.

Musikari buruz idatzi zituen honako lan hauek: «Música del porvenir» (*El Noticiero Bilbaino*, 1900), «Masas Corales» (*Diario de Navarra*, 1903), «La resurrección de Bach» (*El Pueblo Vasco*, 1904), «Mirentxu en Madrid» (*Euskal-Erriaren Alde*, 1915), «Domingo» (*Txistulari*, 1928), «Domingo en San Antón» (*Txistulari*, 1928), «Música y Danzas» (*La Gaceta del Norte*, 1929), «Un libro popular de música religiosa» (*La Gaceta del Norte*, 1929), «La Schola Cantorum Santa Cecilia» (*La Gaceta del Norte*, 1929), «Homenaje cordial al sabio y al artista», Aita Donostiari eskainia, (*Txistulari*, 1933). Badirudi kritika musikaz aritzeko asmoa zuela Don Bonik ikasketak amaitu ondoren Gernikan zegoenean. Marcelino Menéndez y Pelayori idazten

dio Karmelok haren bibliotekara joateko go-
goa zeukala Bonifaziok kritika musikalari ze-
gozkionak kontsultatzeko, bereziki Wagner-en
erreformarekikoak. Bisita hori egin zuen Bo-
nifaziok, urriaren 8an eskerrak ematen diz-
kio Karmelok Marcelinori egindako harrera
onagatik eta.



Urtebete lehenago emandako hitzaldiak 1933an argitaratuak



Madrilen bizi zen legegizon eta idazlea

Ogibide bila

Zuzenbide ikasketak bukatuta, amarekin eta Karmeloren familiarekin bizi izan zen Don Boni Gernikan. Behin behineko udal epaile izan zen urte pare batean edo. Baina 1899ko uda amaitu ondoren hasi zen lanaren bila. Madrilera joan zen 1899ko azaroan, Karmelok han zeuzkan lagun eta ezagunekin zer-bait lortzekotan. Zuzenbideko jakituria sa-kontzen hasi zen epaitegiei begira. Baina atzerriko giroan murgildurik sentitu arren, ez zuen jaioterriaren kultura baztertu nahi eta hor dugu 1902ko otsailaren 18an Hon-darribian ortografiari buruz egingo zen Bil-tzar famatu hartarako Karmelorekin batera izena ematen.

Ogibidea dela eta, Karmelok Serapio Mujika-ri Santanderretik 1902ko irailaren 9an ida-tzitako gutunean esaten dio Notaritzarako (Latzinaldari izateko asmoz) lehiaketa pres-tatzen zebilela Don Boni. Badirudi kanpotik zebilela etsaminak prestatzen, Santanderreko Bezana herrixkatxoan, agian, 1902ko aben-duaren 14an Gernikara baitator Gabonak ospatzera. Hurrengo urteko martxoan adie-razten da Notaritzarako etsaminen data, eta hilabete pare bat falta zaio eskatzen den adi-na betetzeko eta ezin da lehiaketara aurkez-tu. Nahigabe honi gehitzen zaio 1903ko abuztuaren 2an Josefa Korta Eizagirre ama hiltzen dela Gernikan hirurogeita hamar urte zituenean eta bertoko kanposantuan

lurperatzen dutela, non lehendik dagoen Karmelin haurra, Karmeloren semea 1902ko urtarrilaren 4an hila.

Notaritzaren lehiaketa prestatzeko egin di-tuen ikasketak ez dira alferrikakoak izan, zu-zenbide munduan beste helburu bat otutzen baitzaio: Audientzietako idazkaritza. Bizkaian bizi denez, Burgosko barrutiaren barne dago eta 1904ko otsailaren 6an hango Audientzian Gobernuako idazkaritza eskatzen du eta han-dik hilabete t'erdira Burgosa doa eskaria zertan dagoen ikusteko. Baina susmo txarrak bururatu zaizkio eta handik itzulita, egun bi barru, 1904ko martxoaren 24an Iruñeko idazkaritza eskatzen du eta apirilean Nafa-rroako hiriburura doa Arturo Kanpionekin bertako zuzenbide forala eta nolabait bere-zia ikastera, lehiaketako gaiak ondo presta-tzeko asmoz. Han ere ez du ezer lortzen eta Zaragozara doa 1905eko maiatzaren 2an. Han ere etsamina oso onak egin arren ez du kargurik lortzen eta maiatzaren 28an Sevilla-ra doa hango lehiaketan parte hartzeko. He-men ere etsaminak oso ondo gaititzen ditu eta 1905eko uztailaren 1 In Sevillako Audien-tzian idazkari kargua irabazten du, eta bertan dirau Gabonetarako Gernikara etorri arte abenduaren 29an. Caceresen eta Oviedon ere egon omen zen nekrologia batzuetan irakurri dudanez; baina ez daukat froga fida-garririk.

Lau urte beteko ditu ia ezer idatzi gabe. Bi-tarte horretan idazten du zuzenbidearekiko

lehen lana: «La delincuencia infantil. Datos estadísticos y observaciones» (Bilbo, 1909). Handik urtebetera idazten dio Karmelok Se-rapio Mujikari Bonifaziok esan diola sinatu duela Madrilgo Gorengo Epaitegiko Idazka-riorde kargua, 1910eko otsailaren 23an. Idaz-kari kargua hutsik geratuko delakoan, laster emango diotela uste du Don Bonik. Eta hala gertatzen da 1916ko otsailaren 22an: Goren-go Epaitegiaren Bigarren Gelako Idazkaria izendatzen dute Bonifazio Etxegarai jauna.



Familia berriz


Jatorriz arabarra zen Rikarda Irabien Calle gaztearekin ezkondu zen gure abokatua Castro-Urdialesen 1907ko martxoaren 23an. Zazpi seme-alaba izan zituzten: Pilar, Jose Maria, Claudio, Carmen, Ricardo, Elvira eta Maria Dolores («Loli»). Emaztearen eraginagatik, Euskal Herritik kanpo jaio zirelako edo ez zegoelako oraindik euskal izenak jartzeko ohitura nahiko sendotua, erdal ponte izenak jarri zizkioten seme-alabei. Dena den ez zuen honak garrantzi handirik Don Bonirentzat, eta hala diotso R. M. Azkueri Madriletik 1932ko abenduaren 6an: «Se están viendo cada vez más nombres como Koldobika y Kiurekas, pero por lo visto sus padres, aunque no saben contar en euskera hasta veinte, son más patriotas que nosotros, los que a nuestros hijos llamamos Jose Mari, Claudio o Ricardo, pero que nos cuidamos de que en el cogollo de la Maketania aprendan la lengua de sus antepasados». Hiru seme-alaba galdu zituen bera bizirik zegoelarik: Carmen (1926, Karmentxu dei-



Tribunal Supremo edo Gorengo Epaitegia, non lehiaketaz irabazi zuen idazkari kargua 1910ean

tzen dio euskaltzain sarrera hitzaldian), Jose Maria (1944, istripuan) eta Loli, Fausto Arozenak dioenez Ricarda emaztea hil baino bost ordu lehenago parkinsonekin 1943an.

Lanak behartuta Madrilen bizi baziren ere, oporrak beti egiten zituzten Castro-Urdialesen edo Euskal Herriko beste hiri batzuetan: hasieran Gernikan Karmeloren familiarekin, Altzolan, hemen ere Karmelorekin hango bainuetxera joaten zelako anaia nagusia giltzurrunen gaixoagatik, Zarautz, Aiarako Menagairai herrixkara, bakearen bila. Oporretan ere lan egiten zuen Don Bonik, ipuinak idazten edo menditik ibilaldiak egiteran toponimoak eta etxeen izenak biltzen, euskaltzain sarrerako hitzaldian eman zituenak gehitzeko.



B. Etxegaraik Madriletik R.M. Azkueri idatzitako gutuna

Legegizona

adrilen Gorengo Epaitegian kargua hartu zuenetik urduri ibili zen Don Boni zeukan erantzukizunagatik, lanak zekarren zamagatik edo hain handia zen hiri batean ez zuelako nahi zuen besteko lasaitasun eta bakerik aurkitzen. 1914ko irailaren 9an idazten dio Karmelok Gernikatik Mujikari Bonik ez duela betetzen karguak eskatzen dion ardura eta betebeharra; baina zorionez urduritasuna kentzen eta lanpostuari zor diona egokitzen hasi dela. Epaitegiko arduretatik kanpo ere lan oparoa egiten hasi da, hitzaldiak prestatzen eta liburuak mamitzen. Euskara ere berreskuratzen du hitzal-



Bilbon 1920.eko maiatzaren 15ean emandako hitzaldia, 1921ean argitaratua

dietan eta liburuetan. *Euskaldunak*, euskaraz hitzaldia irakurtzen du Donostiako Novedades antzokian, Eusko Ikaskuntzak hurrengo urtean argitaratuko duena *Itzaldiak* izenburuko liburuan. Euskara erabiltzeko arrazoia Senekatik hartuta ematen digu: «Nemo enim patria quia magna est amat, sed quia sua est» (inork ez du aberria handia delako maitatzen, berea delako baizik). Txomin Agirreren *Kresala* gaztelaniara itzultzen du Don Bonik Madrileko *El Correo Español*-en.

Lege eta historia gaiak ukituz, «El proceso de la Zamacolada» hitzaldia egiten du Bilbon (1920) eta Eusko Ikaskuntzak bazkideztat hartzen. Beste bi hitzaldi emango ditu urte berean Bilbon: bata Bizkaiko Institutuan, maiatzaren 15ean, «Aspectos jurídicos de la Zamacolada. Régimen y gobierno del Puerto de la Paz», eta bestea Arte eta Ofizioetako Eskolan, «La vida civil y mercantil de los vascos a través de sus instituciones jurídicas», maiatzaren 21ean, gero *RIEV* aldizkariak eta Diputazioak argitaratua. Euskal Zuzenbidearen saileko kide izendatu zuen orduan Eusko Ikaskuntzak (1922-1936), eta Jose Artetxek esan zuen horren ondorioz, Don Boni zela «Euskal Herriko jurista, gure intelektualen artean langilerik sutuena eta bere memorian zeukan fitxero aberatsenaren jabea».



Itzaldiak liburuan (1920) argitaratutako hitzaldia

Gerokoak dira «Moción sobre Derecho vasco» (El 1923), «Significación jurídica de algunos ritos funerarios vascos» (Donostian Diputazioak liburu moduan eta *RIEV* 1925), «Estudio jurídico de los contactos entre copropietarios, patronos, tripulantes y fogoneros» (1925), «Nombre de mojonos» (*Euskal-Erriaren Alde*, 1925), «Derecho de gentes argentino» (*RIEV*, 1926), «Moción sobre el Apéndice Civil del Código Civil» (El, 1930), «Las donaciones inter vivos al hogar indivisible» (1930). Ikusten denez, hemengo aldizkari eta argitaletxeetan kaleratu zituen ia lan gehienak. Baina Madrilen ere argitaratu zituen batzuk, bat oso garrantzitsua, hots, «Vasconia» Espasa Entziklopedia-rako (1929), eta gero «Síntesis de Historia del Derecho Vasco» (1932). Espasako lan luzeak lau kapitulu ditu: 1. Origen del nombre Vasconia; 2. Historia; 3. Derecho; 4. Idioma. Idazlan hau eta lehendik argitaratuak zituenak ikusita, Euskal Unibertsitatea sortzeko asmoetan zebilen Justo Garatek (medikuntza zeukan bakarrik buruan hasiera batean) Zuzenbide eta Historia katedrak sortzea proposatu zuen bata eta bestea Don Boniri atxikiz.

Politikan ere sartua zen urte hauetan, eta gero sakonago sartu bazen, Primo de Riveraren garaian, sortu berria zen FAPE (Federación de Acción Popular Vasca) (1928) betebeharreko arduretan zeukan, eta Euskaltzaindiak Donostian urriaren 26an egin-



Eusko Ikaskuntzaren bilera
(1932-06-29):
T. Aranzadi, David Jaime,
J. Elorza, J. Orueta,
M. Leremboure.
Zutik: A. Apraiz, J. Agirre,
J.A. Donostia, J. Vilallonga,
J. Urkixo, J. Fuentes,
J.M. Díaz de Mendibil,
B. Etxegarai, J.M. Barandiaran,
E. Eguren, C. Armendariz

dako bileran erakunde horretarako ordezkari Bonifazio Etxegarai izendatu zuen.

Errepublikara garaitu zen eta 1932an Udalen Batzordeak izendatu zuen Autonomiako Estatutuari erredakzioa emateko or-

dezkar. Ordurako bazituen idatziak Euskal Herriaren batasunaren aldeko artikulatuak: *La Voz de Navarra* egunkarian kaleratuak zituen (1931): «Las relaciones futuras de las regiones vascas», «Por la Unión», «En memoria de los precursores de la unión de Navarra,



Euskal Elkarte Bazpatza
(FAPE). Eserita:
J. Landaburu,
J.M. Barandiaran,
B. Etxegarai, A. Apraiz.
Zutik: Orixe, Aitzol,
M. Esparza, A. Anabitarte

Guipuzcoa y Alava», «Las relaciones de las regiones vascas entre sí», «La vecindad. Relaciones que engendra en el País Vasco» (RIEV, 1932), «Proyecto de creación de un Instituto de Derecho Civil» (EI, 1932), «Algunos aspectos del Estatuto» (*La Gaceta del Norte*, 1932) «La legislación civil común» (1932). Primo de Riveraren diktaduran estutasunak iragan bazituen Errepublikan ere ez ziren denen gustukoak idazten zituenak. Euskaltzain hautatua izan ondoren lau urtetan (1927-1930) euskararen defentsan idatzi zi-

tuenak eta Euskal Herriari eta Estatutuari buruz argitaratu zituenak (*La Gaceta del Norte*, *Diario de Navarra*, *La Voz de Navarra*) minduta utzi zituen orduko aginteak. R. M. Azkuri (Don Berbiz deitzen dio) 1932ko abenduaren 6an zera idazten dio: «Inausketak jarraitzen du baina orain arte ez da nigana heldu».

Errepublikako funtzionario izateak ekarri zizkion Francoren garaian arazo gehiago: Donibane Garazira erbesteratu beharra izan



Espasa Entziklopedian, *Vasconia* sarreran, argitaratu zuen Euskal Herriko mapa



zuen. Auzitegi militar batek epaitu zuen Bonifazio Etxegarai. Gorengo Epaitegiko Idazkaria eta inori kalterik ez ziolako egin eta funtzionario gisa agintean hitza bete behar izan zuelako, arazo hau ere konponduta geratu zen 1944an. Ez dakidana da zer gertatuko zitzaien epaiketa horretan kontuan izan balute Etxegaraik Eusko Jaurlaritzan izan zuen kargua: 1936ko urriaren 22an Justizia eta Kultura Kontseilaria zen Jesus Maria Leizaola Aholku Juridikoko Batzordekide izendatu baitzuen. Euzkadi Irratitik, 1937ko maiatzaren 4an Gernikako bonbardaketaz egin zuen salaketa gogorra ere ez dakit agertu zen epaile militarrek erabili zuten sumarioan.

Gerra bukatu ondoren, zuhurtasun apur batekin, ez zen bospasei urtez arazo politiko eta juridikoetan sartu. «La Libertad de testar» (BRSBAP) lan laburra argitaratu ondoren, *Derecho foral privado* liburua eman zigun Donostian 1950ean inprimatua. Hori prestatzen zebilela, 1949ko apirilaren 30ean Iruñean emandako hitzaldi bat liburu gisa kaleratu zuen: *Los ritos en el Derecho consuetudinario de Navarra* (1951). Zuzenbideari dagokiona bukatzeko, hara hemen argitaratu zuen azken artikulua, heriotzako urtearen irailean: «Eficacia de la carta-Puebla de 13 de septiembre de 1256», In: *Libro de Homenaje a Tola*, 1956.



Iruñean 1949.eko apirilaren 30ean emandako hitzaldiaren argitalpena (1951)



Karmelo hil zenean, Euskaltzaindian honen aulkia hartu zuen Bonifazio 1926an

Euskaltzaina

Serapio Mujikari 1925eko abuztuaren 19an Karmelo Etxegaraik idatzitako gutunean esaten zion Urduña, Orozko eta Menagarai aldean ikerketak egiten zebilela eta ondo sentitzen ez zenez, Altzolako bainutegira itzultzen zela eta handik Gernikara. Osagileek ezin izan zuten ezer egin eta azaroaren 4an hil zen Karmelo Gernikan, nongo kanposantuan lurperatuta dagoen. Serapiori idatzi zion gutun bat Don Bonik azaroaren 26an «aita baino gehiago eta maisu» izan zuen anaiaren azken egunak adieraziz. «La última lección de mi maestro» idatzi zuen anaia gazteak (*Euskal-Erriaren Alde*, 1925).

Hamabi euskaltzain oso ziren orduan Euskaltzaindian: Azkue, Etxegarai, Urkixo, Kanpion, Altube, Lacombe, Landerretxe, Intzagarai, In-

tza, Eguzkitza, Olabide eta Lhande. Karmelo Etxegarairen hutsunea betetzeko, Donostian 1926ko urtarrilaren 29an egindako osoen bilkuran, Azkue, Urkixo eta Landerretzek proposatu zuten Bonifazio Etxegarai Korta. Nahiz eta Olabide jaunak hautaketan askatasunaren falta salatu eta luze eztabaidatu, haurtura jo zuten zeuden zortzi euskaltzainek eta Etxegaraik 6 boto lortu zituen, bata zuri, eta Olabidek ez zuen autarkirik bota nahi izan. Beraz, Don Boni izan zen euskaltzain berri izendatua.

Sarrera hitzaldia jaioterrian, Zumaian, irakurri zuen euskaltzain berriak 1926ko urriaren 29an. Gaia, «Euskal Erriko etxeen izenak». Elias Arrospe, Zumaiaiko alkateak eman zion hasiera ekitaldiari, eta Erramun Intzagarai, Euskaltzaindiaren zadorlariak erantzuna. Sarrera hitzaldiari buruz esan dezagun orain, gaia iker-

tzen jarraitu zuela Don Bonik; Madriletik Azkueri 1944ko irailaren 1ean idatzi zion 15.000 fitxa zituela bilduta etheen izenekin. Baina ez du bukatutzat ematen lana Mendexa, Ipazter eta Lekeitioko izenak eskatzen baitizkio.

Bi eguneko bilerak egiten zituen orduan hilero Euskaltzaindiak eta Madrilen bizirik ez zen erraza, karguak ematen zion ardura utzirik, bietara etortzea. Hala eta guztiz ere, lehenengo urteetan ahalegintzen zen Etxegarai Donostian, Bilbon edo Iruñean agertzen. Eta lanak prestatzen eta aurkeztzen. «Algunas voces vascas en el Fuero de Navarra» irakurri zuen Iruñean 1927ko otsailaren 24an egindako bileran. «Nombres vascos en los espacios intermedios entre casas» izan zen Bilbon 1927ko apirilean eta Donostian 1928ko abenduan, bizatitan, irakurritako gaia. Euskararekin zerikusi

zuzenik ez badauka ere, bibliografiarako aipatu behar da Bergaran 1927ko irailaren 24an eman zuen hitzaldia: «Algunos aspectos relacionados con la patria y apellidos de San Martín de la Ascensión». Euskaltzaindian sartu baino lehen, 1924an, *Yakintza* aldizkarian argitaratu zuen euskararen irakaskuntzari zegokion lan bat, hots, «Vehículo lingüístico utilizado para la enseñanza en el País Vasco».

Gero, Errepublika heldu eta Euskaltzaindiak Iruñean egin zuen bileran, 1931ko apirilaren 29an, Etxegaraik proposatuta ministro berriari bisita egitea erabaki zen ikastoletan euskaraz irakastea baimendua izan zedin. Agindu hori betetzeko ohoretzat hartu zuen Don Bonik R. M. Azkuek Ministeriora laguntzea. Hitz onak eman zizkien Tormo jaunak, baina ez zen praktikan ezer lortu. Urtebete



Euskaltzaindiaren
bilera (1927):
Eserita: J.B. Eguzkitza,
B. Etxegarai, R.M. Azkue,
G. Lacombe. Zutik: Orixe,
M. Landerretxe, S. Altube,
J. Urkixo, R. Olabide



Liburu honetan argitaratu zen B. Etxegararen
«Vehículo utilizado para la enseñanza en el País Vasco»



Nafarroako Foruan ondo aztertu zituen euskal hitzak

barru berriz joan zen Etxegarai eta Marcelino Domingo ministroarekin bildu zen. Oraingoan ere, berba onak, Boletinean agertuko zela elebitasunaren aldeko dekretua, eta abar. Dekretu berri bat bai, baina ez zekarren ezer elebitasunari buruz. Gai hau, 1924an erabilia, eguneratuta argitaratu zuen «Euskaltzaleak» 1935ean *Lucha de idiomas en Euzkadi y en Europa* liburuan Anizeto Olano Miguel de Alzo, Eduardo Landeta eta Jose Ariztimuñoren idazlanekin batera. Euskararen irakaskuntza-ren historia ematen digu Don Bonik iruzkin aberasgarriekin. «Ekin eta jarrai» antzerako esaldi batekin bukatzen du 30 orrialdeko txostena: «Pertinax virtus omnia vincit».

Eleizalderi omenaldia Bergaran: J. Elorza, Luis M. Eleizalde, L. Ruiz de Prada (alkatea), E. Eguren, E. Ornilla, J. Urkixo, B. Etxegarai, T. Aranzadi, A. Paguaga, M. Chabaud, J. Eleizalde (1930)



Osasunez gaizki zebilen azken boladan, 1933tik hasita, eta gero eta gutxiago zetorren Euskaltzaindiaren bileretara. «Nire gorputza matxura ugarietatik osasun unetara heltzen denean —esaten zion Azkueri 1935ean— denbora eta gogoia izaten dut lan egiteko, eta beharrizana ere bai hainbat lan daukat eskuarteetan eta.» Gero aipatuko ditugun ikerlan luzeetatik aparte, orain *Jagon* sailean sartuko genituzkeen hainbat kazetari lanak argitaratu zituen, gehien bat *La Gaceta del Norte* egunkarian: «El porvenir del euskera», «La labor de defensa del euskera», «Hacia la unión de los vascuistas» (1927), «En defensa del euskera», «Las osadías de algunos lingüistas», «Las etimologías vascas», «Euskerismo práctico» (1928-29), «La depuración del vascuence», «Los avances del euskera», «El porvenir de la acción euskerista», «El euskera en la enseñanza», «El euskera en la predicación», «El euskera en la catequesis», «En pro de los derechos del euskera», «El anillo y otros excesos», «El euskera en las empresas culturales», «Antigüedad de la guerra contra el euskera», «El euskera en la correspondencia epistolar» (1830), «Geografía del euskera», «Acuerdos de Navarra: el bilingüismo escolar», «El euskera en Alava», «La pérdida del euskera en Alava», «La pérdida del euskera en Navarra» (1932-33).

Baina euskararekiko kazetaritza lan hau ere albo batera utzi zuen eta zuzenbide eta etnografiatzeko lanekin jarraitu zuen. Euskaltzaindiak, Donostian 1949ko martxoaren

25ean egin zuen bileran zera erabaki zuen: «Bonifazio Etxegarai euskaltzainari bere euskaltzaintzeari eragin dakiola eskatutea». Iraileko bilerara etorri zen urte horretan Donostiara eta 1951ko apirilaren 28an Bilbora. Hori izan zen Etxegararentzat azken bilera.

Bospasei artikulu gehiago argitaratu zituen hil arterainoko unean eta bi ikerlan interesgarriak utzi zituen amaitu gabe: *Arnold von Harff, erromes alemana*, zeini buruz 150 folio idatziak zituen 1944an Azkueri idatzi zion bezala, eta Galizia eta beste tokietako harginek euren argotean erabiltzen zituzten euskal hitzen zerrenda eta ikerketa. Non geratu ziren idazlan hauek ez dakigu, eta pozgarri izango litzateke nonbaiten agertzea, interesgarriak baitira euskararen historiari eta lexiakoaz argibidea izateko. Baita Bonifazio Etxegarai egin zuen lan oparoa osotasunean ikusi eta baloratzeko ere.



Durangoko planoak. Margotutako Komentu Kaleko 21. zenbakidun etxean hil zen Bonifazio Etxegarai

Heriotza

Oso gutxi zen Bonifazio Etxegarairen heriotzaz genekiena: Durangon hil zela 1956ko abenduaren 24an, Gabon egunean beraz. Egun horren inguruko egunkariak begiratuta *La Gaceta del Norte*n aurkitzen dugu Komentu kaleko 21. zenbakia zeraman etxearen 2. solairuan hil zela, moja frantziskotarren komentu eta ikastetxearen alboan. Pilar, alaba nagusia moja zenez, zein ordenakoa zela jakin ez arren, bazirudien Gabonak alabaren inguruan igarotzera joan zela Durangora, ordurako alargun baitzen. Baina hau guztia ipuin antzekoa da gehiago ikertzen dugunean.



Arnold von Harff-en eskuizkribuan (1496) agertzen diren irudi eta hiztegiñoa

Santa Ana parrokiako hildakoen agiriak ikus-ten baditugu, argi agertzen dira bi datu: parrokia honetako eliztarra zela eta alborengoak jota hil zela. Beraz, eliztarra izateak adierazten digu ez zela egun batzuk igarotzera etorri, bertan bizi zela baizik. Eta albo-erengo gaixotasunak ere etxean eta ohean makal luzaro egotea esan nahi du. Baina, noiztik bizi zen Durangon? 1955eko erroldan ez da agertzen, beraz, urtebete, gehien jota, zegoen Durangon.

Baina zergatik Komentu kaleko 21. zenbakian? Bi komentu daude kale horretan: Santa Susana eta San Frantziskorenak. Ez batean ez bestean ez da inoiz Pilar Etxegarai izeneko mojarik egon. Eta hemen datozkit, ene ustez behin betiko, bi durangarren argibideak: Jose Luis Lizundia euskaltzainarena eta Jon Irazabal Durangoko historiaren ikertzailearena. Etxegaraitarrak, bai Karmelo baita Bonifazio, familiarekin, Altolako bainuetxean egotaldiak egiten zituzten atsedenenaren bila eta osasunaren onerako. Maria Zelaia izena zeraman hotolean egoten ziren, inoiz Karmelok bertako menbretearekin erabili zituen orriak gutune-



tan. Karmelo hil ondoren, noizean behin joaten zen Don Boni Zelaia hotelera, non hiru ahizpa ziren sukaldari famatuak: Frantziska «Pantxi», Mari eta Tomasa. Adinagatik edo hotela utzita etorri omen ziren Durangora, non «las cocineras» deitzen zieten. Eta Jon Irazabalek dioskunez (*1937 martxoak 31 Durango*, 2001, 111or.) Komentu kaleko 21. etxea Frantziska Zelaiarena zen eta Lizundia adiskideak bildu dituen datuen arabera, konfiantzakoentzat bazuten Zelaiatarrek ostatu antzekoa. Altzolan irabazitako konfiantza eta adiskidetasunagatik etorri zen Don Boni 78

urterekin, bizitzako azken egunak igarotze-
ra. Eta Gabon gaueko zortzietan hil zen es-
kelan beste titulu guztiak aparte utzita «hi-
rugarren ordenako kidetza» aitortuz.

Hiletak abenduaren 26an egin ziren Santa Ana parrokian eta hilaren borondatea erres-
petatuz, Gernikako kanposantura ekarri zu-
ten gorpua, ama Josefa, Karmelo anaia eta
beste senide batzuk zeuden hilobira.

Esan dezagun, amaitzeko, Bonifazio Etxegarai Korta euskaltzainaren aulkia Nikolas Orma-
etxea Orixen idazleak hartu zuela.



Gernikako hilerrian dagoen Etxegaraitarren hilobia

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak liburuxka hau egiteko, jasotako laguntzagatik, eskerrak eman nahi dizkie:

- *Etxegarai familia*
- *Azkue Biblioteca. Euskaltzaindiari: Gutunak eta argazkiak*
- *Eusko Ikaskuntzari. Argazkiak*

Bibliografia

- ARANA MARTIJA, Jose Antonio: «Bonifazio Etxegarai eta Korta». *Euskera*, 1979, I, 45-59.
- Auñamendi: *Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco*.
- ETXEGARAI, Karmelo: *Cartas a Serapio Mugica*. Donostia, 1987.
- ESTRONES ZUBIZARRETA, Idoia: *La Sociedad de Estudios Vascos*. Donostia. 1983.

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	I.a, 2004ko azaroa
Ale-kopurua:	2.500
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, I - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Joseba Olalde (g. b.)
Fotokonposizioa:	R.G.M., S.A.
Inprimaketa:	R.G.M., S.A. Padre Larramendi, 2 - 48012 Bilbao
ISBN:	84-457-2176-3 (Lan osoarena) 84-457-2180-1
L.G.:	BI-2.958-04